

## **GERNIKA BHIko LAU IKASLE SARITUAK “URRUZUNO GEHITUZ 2012-2013 LITERATURA-EKIMENEAN”**

Ikasleen literatura zaletasunak eta ikastetxetik urteetan bultzatutako literatura inguruko ekimenek barriro fruituak eman dituzte.

“Urruzunotarrak gehituz ekimena” euskaraz idazteko zaletasuna gure gazteen artean sustatzeko sortu zen lehiaketa dugu. Irakaskuntza ertainetako Literatura-lehiaketa honetan, Euskal Autonomi Erkidegoko eta Nafarroako ikasleek parte hartzen dute bi kategoria desberdinetan (prosa/poesía), DBH 3-4 eta Batxillergoko 1-2 mailetan edo Erdi Mailako zikloa ikasten dabilzanek. Eusko Jaurlaritzako Kultura, Hezkuntza eta Hizkuntza Politika Sailak antolatutako lehiaketa da .

Aurtengo epaimahaikideak honako hauek izan dira: Urtzi Urrutikoetxea, Castillo Suarez, Miren Agur Meabe, Katixa Agirre eta Leire Bilbao.

2013ko txandan, 20 ikasleren lanak saritu dituzte: **A** kategorian (gazteak, Batxilergoko 1. eta 2. mailak), prosan, bi saridun Gernika BHIko batxilergoko ikasleak dira: biak gernikarrak, **Ane Miren Arejita Abaitua** eta **Sara Abaunza Urionabarrenetxea**. **B** kategorian (gaztetxoak, DBHko 3. eta 4. mailak), prosan, beste bi saridun Gernika BHI DBH 4. Mailako ikasleak: **Lurdes Ondaro Mallea** munitibartarra eta **Katalin Ibarzabal Galarza** gernikarra.



Saria: irailaren 2tik 6ra literatura-egonaldia IEIgoibarko ABUXIA aterpetxean. Bertan, literatura-tailerrak eta beste ekintza batzuk izango dituzte.

Aurreko urteetan (baina ez urtero) eduki ditugu halako sariak Gernika BHIIn: euren artean Josu Goikoetxea, Mikel Santiago, Haizea Caminos, Elena Elgezabal, Amaia Quintana, Cristian Bedoya, Julene Mendiola, Irati Seijo, Zihara Jainaga, Iker Miret, Irene Ortiz, Ainhoa Vidal, Pablo Calleja. Oraingoan, beste lau hauek gehitu behar ditugu.

Irakaskuntza ertainetan entzute handikoa da Urruzuno-lehiaketa eta aspaldiko urteetan ikasle sasoiari saridunak izan zirenak gaur egun euskalgintzan oso ezagunak dira (Harkaitz Cano, Josu Goikoetxea, Fredi Paia, Xabi Paia, Arkaitz Estiballes, Unai Iturriaga, Iñaki Aurrekoetxea,...). Landare berriekin berdintzatuko ote?